



Herejeen alaba

Ander Berrojalbiz,
Joseba Sarrionandia

ISBN: 978-84-9172-017-1
Saio eta Testigantza, 197
8 argazki eta irudi koloreetan
2017. urtea / 15 x 21 cm / 64 or.

8,50€

«Hereseak erre zituzten lekuan, errautsen artean, kristalezko bihotz bat aurkitu zen.»
Orreagako IV. Kronika

Fraile bat Orreagatik Durangorantz abiatzen da. Hara helduta, biharamunean hamabi hereje erreko dituztela jakingo du, haien artean haur bat, herejeen alaba. Hau da *Kristalezko bihotza* narrazioaren abiapuntua, irakurleak esku artean duen liburua zabaltzen duena.

Joseba Sarrionandiak «literatura arturiko eta mediebalean murgilduta» bizi izan zuen kartzelako «denbora hutsean» izkiriaturako narrazio hura iturri historikoetan gordetako errealitatea fikzioarekin uztartzen duten horietakoa da. Hala ere, proiektu honen eragile izan diren aurkikuntzek agerian utzi dutenez, kasu honetan, errealitatea eta fikzioaren arteko erlazioa zeharo korapilatsua da, historia eta istorioaren hainbat geruzatan azaltzen dena. Horrela, Ander Berrojalbiz ikerlariari zor diogun *Kristalezko bihotzak* idatzian, zenbait elizgizonen irudimenaren eskutik, XII. mendeko Koloniatik XX. mendeko Durangora garamatzan istorio baten arrastoak jarraituko ditugu.

Azkenik, eranskinetan, Durangaldean egondako heresia ezberdinen berri ematen duten hiru testu eskaintzen dira, Joseba Sarrionandiak 1979an idatzitako *Durangaldeko herejeak eta Artekalako Manzaneroa* barne.

■ ■ ■

ANDER BERROJALBIZ *(Durango, 1983)*

Historiako ikasketak albo batera utzi zituen musika ikasketetan sakontzeko. Gaur egun, antzinako musika jorratzen duen Khantoria taldeko biolin-jole eta sortzaileak Musikaren Historia irakasten du Durangoko Bartolome Ertzila Kontserbatorioan. 2016an *Los herejes de Amboto*. «*Luteranos*» en el año 1500 liburua kaleratu zuen Pamiela Argitaletxearekin.



www.pamiela.com

JOSEBA SARRIONANDIA *(Iurreta, 1958)*

948 326 535 • soltxate@pamiela.com